

Gesto por la Paz

Rueda de prensa de presentación de las X JORNADAS DE SOLIDARIDAD CON LAS VÍCTIMAS.

A través de esta rueda de prensa queremos presentar las X Jornadas de Solidaridad con las Víctimas que se van a celebrar los días 27, 28 y 29 de este mes.

Efectivamente, desde hace diez años, Gesto por la Paz ha venido organizando estas Jornadas de Solidaridad con las Víctimas cuyo objetivo ha sido, desde un principio, hacer visibles a las víctimas del terrorismo. Es verdad que ya entonces, cuando comenzamos, las voces de algunas víctimas se escuchaban en los medios de comunicación; sin embargo, no existían foros en los que se pudiera percibir realmente el alcance del dolor padecido. A través de estas jornadas hemos acercado a la ciudadanía en general los testimonios de familiares de víctimas, de supervivientes y de amenazados, entre otros.

Estas jornadas se han compuesto fundamentalmente de momentos realmente emocionantes y duros en los que las víctimas (en el grado en que lo fueran) abrían su corazón ante cientos de personas desconocidas. A todas y cada una de las personas que participaron queremos agradecer muy sinceramente el enorme esfuerzo personal que hicieron. El esfuerzo de hablar en público, la mayoría, por primera vez; el esfuerzo de hablar de momentos tan íntimos y desgarradores de su vida; en muchos casos, el grandísimo esfuerzo de volver a Euskadi a donde no venían desde que sufrieron el atentado; el esfuerzo de dejar desnudo su corazón, su dolor, en ocasiones, aunque parezca mentira, también por primera vez.... Es necesario conocer la realidad para ser conscientes de la tragedia que han vivido miles de personas, para ejercer la solidaridad absolutamente imprescindible hacia ellas y para que la sociedad asuma su deber hacia estas personas que directamente fueron objeto del ataque que el terrorismo lanzó contra toda la ciudadanía, contra el sistema, contra la convivencia en paz y libertad.

Sin duda alguna, ninguno de sus oyentes quedó indiferente. Más bien, todo lo contrario porque, a partir de ese momento, aquella víctima pasó a formar parte de su historia personal y seguramente que ese testimonio contribuyó de manera decisiva a dar pasos firmes hacia la solidaridad y el reconocimiento y a mirar directamente la terrible tragedia que ha ocasionado la violencia, la intolerancia, la injusticia extrema... Toda esta labor, aunque poco a poco, está produciendo ya su fruto.

En los últimos años, hemos realizado las jornadas en las tres capitales vascas para que lleguen al mayor número de personas. Así pues, este año también estaremos presentes en cuantos más lugares, mejor: **el martes 27 será en Donostia; el miércoles, 28 será en Vitoria; y para terminar, el jueves 29 será en Bilbao.**

Las X Jornadas de Solidaridad con las Víctimas van a tener alguna novedad. En las anteriores ediciones, además de los valiosísimos testimonios de las víctimas, siempre hemos invitado a psicólogos, sociólogos, analistas sociales, profesores, filósofos, etc. que nos ofrecían sus reflexiones sobre diversos temas relacionados con las víctimas. En esta ocasión, vamos a mantener la presencia de víctimas y la difusión de sus testimonios y también vamos a abrir un importante espacio a la reflexión sobre dos temas que consideramos muy necesario tratar en estos días: las víctimas de

Gesto por la Paz

actuaciones indebidas por parte de las fuerzas y cuerpos de seguridad del Estado y el papel de las víctimas de la violencia en el momento actual.

El día dedicado a los testimonios será en Vitoria-Gasteiz, concretamente en el salón de actos de la Casa Cordón (c/ Cuchillería, 24). Se proyectará la película "Mujeres en construcción" y, posteriormente, se abrirá un coloquio con las dos directoras, Maite Ibañez y Begoña Atín y también contaremos con la participación de dos de sus protagonistas. "Mujeres en construcción" es un documental en el que se suceden secuencias similares del relato, del testimonio de un grupo de mujeres que han sufrido el zarpazo del terrorismo. El mismo dolor, la misma impotencia, la misma pena, la misma desesperación, la misma incredulidad, la misma angustia..., sin embargo, cada una lo vivió en un escenario radicalmente diferente al del resto. ¿Qué diferencia a una víctima de ETA de una víctima del GAL o del Batallón Vasco Español? Sin duda alguna, merece la pena ver ese documental y participar en el coloquio posterior con sus protagonistas.

Las víctimas del terrorismo han protagonizado las jornadas anteriores. Sin embargo, este año queremos abrir una ventana a las llamadas "las otras víctimas", las víctimas de actuaciones indebidas de fuerzas y cuerpos de seguridad del Estado. Es un paso necesario. De la misma manera que consideramos fundamental el conocimiento del dolor padecido a causa del terrorismo, creemos que es necesario saber qué ocurrió y qué ocurre con las personas que han sufrido la injusta -por indebida- violencia de las distintas policías. Muchas personas piensan que estas víctimas son directamente miembros de ETA. A otras muchas les resulta difícil entender que ese sufrimiento deba provocar nuestra solidaridad. El martes, 27 de septiembre, en la sala Koldo Mitxelena de Donostia-San Sebastián, comprobaremos, a través de la ponencia que presentará Andrés Krakenberger, que la inmensa mayoría de estas víctimas mortales poco o nada tuvo que ver con ETA u otros grupos terroristas. En relación a esta cuestión, ese mismo día, el profesor Galo Bilbao ofrecerá una interesante reflexión sobre cuando el victimario termina siendo víctima.

Finalmente y para cerrar las jornadas, el jueves, 29 de septiembre en la casa de cultura de Barrainkua en Bilbao, José María Ruiz Soroa y Xabier Etxeberria analizarán desde dos perspectivas distintas (una política y otra ética), cuál es el papel de las víctimas. Las víctimas, la propia existencia de víctimas, es pieza fundamental para deslegitimar el terrorismo; son el testimonio del horror cometido; son la prueba de lo injustificable de tanto horror; son el baluarte de la sociedad para reclamar justicia, dignidad, libertad y paz. ¿Significa esto que los colectivos de víctimas deban ser grupos de presión del propio sistema democrático y del Estado de Derecho? ¿Tienen que ser las víctimas quienes reclamen justicia y dignidad o es un deber de todos los ciudadanos, entre los que se encuentran las víctimas? Estos y muchos más interrogantes se plantearán en la charla de Bilbao.

Animamos a todos la ciudadanía a que acuda a estas X Jornadas de Solidaridad con las Víctimas. Realmente son un medio muy útil para aprender y conocer la peor parte de estos 50 años de violencia. No nos quedaremos indiferentes. No nos quedemos indiferentes y acudamos.

- Donostia-San Sebastián, martes, 27. Las víctimas de actuaciones indebidas por parte de los cuerpos y fuerzas de seguridad del Estado.

Gesto por la Paz

- Vitoria-Gasteiz, miércoles, 28. Proyección de la película “Mujeres en construcción” con la participación de las dos directoras y dos de sus protagonistas.
- Bilbao, jueves, 29. El papel de las víctimas en el momento actual.
Todos los días comenzarán a las **19'00 h.**

BIKTIMEKIKO ELKARTASUNEZKO X. JARDUNALDIAK aurkezteko Prentsaurrea

Prentsaurre honen bidez, hurrengo astean, hilak 27, 28 eta 29, egingo ditugun Biktimekiko Elkartasunezko X. Jardunaldien berri ematera gatozkizue.

Hamar urte dira BAK-ek, Gesto por la Pazek, terrorismoaren biktimak ikusgai egite aldera jardunaldi hauek antolatzen dituela. Artean, zertxobait entzuten zen biktimen inguruan, baina ez zegoen biktimen ahotsak eta saminak sentitzeko fororik. Jardunaldi hauek baliatuta, biktimen senideen, mehatxatuen eta bizirik atera zirenen lekukotzak entzun ahal izan ditugu.

Une hunkigarri bezain gogorak bizi ditugu sarri jardunaldiotan, biktima askok euren bizipen garratza eta bihotza guztion aurrean jarri baitute. Parte hartu zuten emakume eta gizon eskuzabal horiei gure eskerrik onena helarazi nahi diegu, bihotz-biohotzez senperrenak eta bi egin baitzituzten: jendaurre ezezagunari mintzo zintzoan aritzea; euren bizitzaren pasarte latz horiek bestean partekagarri jartzea; euren oinaze amaigabe hori estrainekoz kanpora ateratzea. Askotan gainera, lehenengo aldiz etorri dira Euskadira atentatua jasan zutenetik. Ahalegin izugarri hori aitortu nahi dugu. Izan ere, biktimek bizi izandako trajedia gogoan izatea beharrezko iruditzen zaigu, dagokien ezinbesteko elkartasuna helaraziko badiegu. Guk uste dugu biktimek euren baitan pairatu zuten eraso bortitza gainontzekoon, gure gizartearen eta bakezko eta askatasunezko elkarbizitzaren kontra zihoala. Beraz, baitezpada, gu guztiok hurbil eta ulerkor egon beharko gara.

Ez dugu zalantzarik: aurreko jardunaldietan entzuleak ez ziren axolagabe geratu. Areago, biktima hura askoren baitan murgildu zen, nor bere historian gorde zuen eta, agian, elkartasunezko bide sendoago bat eragin zuen lekukotasun hark. Ondorioz, askok indarkeriak sortutako tragediari artez-arte eta konpromiso sendo batez begiratzen diote. Ez zen lan makala izan, baina emeki emeki ari gara fruituak hartzen.

Azken urteotan, jardunaldiok euskal hiru hiriburutan egin ditugu, ahalik eta pertsona gehienengana heldu daitezen. Aurten, berdin: **27an asteartez, Donostian izango gara; asteazkenean, hilak 28, Gasteizen; eta azkenik, hilak 29, ostegunez, Bilbon egongo gara**

Biktimekiko Elkartasunezko X. Jardunaldiek badakarte berrikuntzarik. Oraingoetan biktimen lekukotzak izango dira, hala nola hilabeteotan mintzagai diren bi konturen inguruan hausnarketak egiteko gunea: poliziek behar ez bezalako ekinbidean sortutako biktimei buruz, eta bestetik, gaur egun indarkeriaren biktimek duten zereginaz.

Gesto por la Paz

Biktimen lekukotzak Gasteizen entzungo ditugu, Cordon Etxean (Aiztogile kalean 24) dagoen aretoan. "Mujeres en construcción" filma ikusiko dugu. Ondoren, pelikulako bi zuzendariekin hitz egin ahal izango dugu, Maite Ibañez eta Begoña Atin-ekin hain zuzen. Baita filmeko bi protagonistarekin ere. "Mujeres en construcción" edo Emakumeak eraikitzen, indarkeriarik ankerrena pairatu duten emakumeen testigantzak dira. Oinaze berdina, ezintasun berdina, sinistu ezinik berdin, atsekabeturik berdin, etsipen berdina, alabaina, nork bere une eta gune desberdinean jaso behar izan zuen eraso. Zerk bereizten du ETArekin biktima bat edo GALeko bat edo Batallón Vasco Españoleko bat? Ondorengo solasaldia interesgarria izango bide da.

Aurten, beste biktima horien leihoa ere ireki nahi dugu, hain zuzen poliziek behar ez bezalako jardunean sortutako biktimak. Beharrezko urratsa da. Terrorismoak eragindako oinazea aitortu behar dela eskatzen dugun moduan, hainbat poliziak neurritz kanpoko jardun bidegabeak pairatu dituzten pertsonen nondik-norakoak ezagutu egin behar dira. Jende askotxok uste du pertsona hauek ETako kideak direla. Beste askok nekez ulertu dute sufrimendu horrek elkartasuna piztu dezakeela. Martitzenean, hilak 27, Donostiako Koldo Mitxelena aretoan, Andres Krakenberg-ek esango digu biktima gehienek ez zutela zerikusirik ETarekin. Segituan, Galo Bilbao irakasleak biktimario biktima bihurtzen den hausnarketa horri buruz egingo digu hitz.

Azkenik, ostegunean, hilak 29, Bilboko Barrainkua Kultur Etxean José María Ruiz Soroa eta Xabier Etxeberriak biktimen zeregin politiko eta etikoa aztertuko dute. Biktimak berak dira indarkeria deslejitimatzeko ardatza, burututako izuikararen testigantza garbia dira, gizartearen zutabe dira justizia, duintasuna, askatasuna eta bakea aldarrikatzeko. Horrek esan nahi du biktimak sistema demokratikoaren eta Zuzenbide Estatuaren presiobideak izan behar direla? Biktimek berek eskatu behar dute justizia edo gainontzekooi ote dagokigu? Honelako kontuak eta gehiago jarriko dira entzungai

Hiritar-hiritar guztiei luzatu nahi diegi gonbita. Azken 50 urteotako historiaren zatirik latzena ezagutzeko modu ona da. Ez gara axolagabe geratuko. Ez izan axolagabe eta joan gaitzen.

- Donostia, martitzena 27. Estatuaren Indar polizialek neurritz kanpoko jardunean eragindako biktimak.
- Vitoria-Gasteiz, asteazkenez, irailak 28. "Mujeres en construcción" filma, beraren bi zuzendariekin eta bi protagonistarekin.
- Bilbao, ostegunean 29. Egungo unean biktimen zeregina.
Emanaldi guztiak arrtsaldeko **7etan hasiko dira.**

COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA
EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA

24 de septiembre de 2011

